


Nafarrakaria


Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko uztailaren 28a / VI. urtea / 189. zenbakia

Carlos Garcia eta 'The Nose'



Carlos Garcia eskalatzan. Eskuinean, Yosemiteko Kapitaina. R. GARCIA

Carlos Garcia eskalatzaile nafarrak bere bizitzako proiekturik handiena prestatzen dihardu egunotan EEBBetan: Yosemiteko Kapitaina paretako 'The Nose' bidea, osoki era askean (laguntza artifizialik gabe eta bera buru dela luze guztietan) eta bistan (aurretik zatiak praktikatu gabe). Orain arte inork lortu ez duena eskaladaren biderik mitikoenetakoan: 900 metroko pareta eta 34 luze. «Lortuz gero Everest lehen aldiz igotzearen parekoa izango litzateke», dio Natxo Barriusok, irail aldera berarekin elkartuko denak. Profesional nafarraren arrakasta ziurtatzeko maila handiko taldea izango da Yosemitean, bi sokaldi ezberdinetan banatuta.



Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Akelarrerako deia egin zuen sorgin nagusiak eta askatasunzale guztiak haruntza ta honuntza abiatu ziren. Pettiriberro eta Zugarramurdira, Bindakoze eta Elgorriagako bidean barna, agintari beltzek inposaturiko araudi estuak hausteko asmoz, beren edertasunak elkarri erakutsi eta beraietaz gozatzeko. Inskisizioaren iluntasunari bizkarra emanez, ilargiaren argitasuna zurbila topatu eta edanez eta dantzan, irri artean, algaran, fereka lizun eta gustagarriak oparitu zizkioten elkarri.

Belladona eta bestelako belarrak laister egon ziren eltze handian irakiten eta salda hartatik hartu zuten denek asetu arte. Txilibituaren doinuak oihartzu-

na izan zuen kobazuloko harri hezeetan eta irrintziak urrunera iritsi ziren mendiz mendi, poza eta plazerraren irrika baserri eta herri galduetan zabalduz. Belardien freskotasanak ezagutu zituen festagi berean gorputz lotuen izerdi eta hasperenak eta ilargi andereak goiko zerutik irripartsu indar osoz ñir-ñirka aritzeko agindua eman zien izar guztiei, Euskal Herrian behar bezala jokatzeko zutela adierazteko.

Eta beheko bailaran geratur-

ko gizon-emakume ilunek, belarriak estali eta aireak zekarzkien hats entzungarriei kasu egin beharrean gaizki esaka, marmarka, ahopeko biraoak botaka, hauntzmarrean ihardun zuten luze. Beren ametsak, amets-gaixtoak, bukaezinak izan zirenta gezur galantak barreiatu zituzten, goizean, uzkur eta haserre beren ohandte hotzetatik jeiki zirenean. Gizakume kopetilun horien gaintik orro batean, garraxikan hasi zirenek madarrikaziorik bortitzenak bota zituzten

ausardian ibilitagoen gainera.

Halere, Herriak bere gorputzaren askatasuna erreibindikatzen segitu zuen eta ahal izan zuen guztietan erakartasunaren legerari eman zion baietza eta haur txikiak, goxoki, sorginak deitu zituen eta jaioberrien ezpainetan ageri ziren amets-irripar inozoei sorgin-parrak esan zien.

Eta gizaki euskaldunek garraxilari beltzen orroen gaintetik, trufa egin eta kantuan eta dantzan segitu zuten eta inkisidore berrien xuxurlatze deitoragarriak zokoratu ondoren belarrak egosten, erretzen eta izerdiz busitzen aritu ziren, beti ere kobazuloetako ohiartzunekin bat egirik.

Akelarrea

GURE AUKERAK

LEHIAKETAK

Atarrabiako udalak 1995ko festetako egitarauaren XI. kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketa Nafarroan bizi edo jaio diren artistek hartu dezakete parte nahi adina obrekin, baina lanak originalak izan behar dute. Lanak aurkezteko epea abuztuaren 30ean akitzen da eta Atarrabiako Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, Kale Nagusiko 67. zenbakian.

Nafarroako Jotaren XI. Txapelketa Burlatan burutuko da abuztuaren hemezortzian. Ekitaldia bertako Udalak antolatu du. Partehartu nahi duenak postaz edo pertsonalki eman dezake izena Burlatako Udaletxeko egoitzan, San Juan Bautista Enparantzan, lehenengo zenbakian hirugarren solairuan. Hemezortzi urtez gorako irabazleak 80.000 pezeta jasoko ditu, bigarrenak 40.000 eta 20.000. Gaztetxoetan, lehenak 25.000 pezeta eramango ditu, 12.000 bigarrenak eta hirugarrenak 8.000.

ERAKUSKETA

Elena del Rivero-ren pinturak daude ikusgai Iruñeko Nafarroako Museoa heldu den asteartetik, abuztuak 1, hilaren bukaera arte. 'Amari eskutitzak' izenburupean 1993. urtetik gaur egun arte egindako lanak aurkeztuko ditu 1953an Madrilan jaiotako artistak.

ANTZERKIA

Mozorro berri Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzak euskara sustatzeko asmoz, herriz herri 1995. urterako antolatu dituen antzerki saioen artean, 'Kollins clown' antzerki taldeak 'Ongi etorriak Mendebaldera' antzestutakoa ikusteko aukera dago. Lana, heldu den asteartean, abuztuak 1 aurkeztuko du Zarraztelun.

KONTZERTUAK

'WOMAD' herri desberdinetako kulturak aurkeztzen dituen ikuskinen artean eta Nafarroako Jaiendien barruan gaur gaueko 9etatik aurrera Juan Perro eta Remmy Ongala eta Orchesta Super ikusteko aukera dago. Hauekin batera herrialde ezberdinetako beste sei artistak parte hartuko dute musika kontzertuan, Iruñeko Zezen plazan. Sarrera 2500 pezetan salduko da. Bihar ere, larunbata, beste zazpi taldek eskainiko dute kontzertua. Eskanatokia, ordua eta prezioa aurrekoaren berdina dira.

BERTSO JAIA

Jokin Sorozabal bertsolari gipuzkoarra ariko da kantari Astitzen gaur, hilak 28. Ekitaldia herriko gazteek antolatutako bertso-afariaren barruan kokatzen da eta gaueko bederatzietatik aitzina izanen da.

NAFAR KRONIKA

PATXI LARRION

Gizarte oinarri zabala?

Termitak lekuko Urralbururen irudia zintzilikatu dute Diputazioan, aurrekoak ez bezalaxe ezkerretik eskuinera begira, eta, nonbait, besteen klasizismotik aldentzeko asmoz zenbait elementu modernistaz apaindurik. Garai batean Gabrielen ezpal berekoa zen Otano dugu Nafarroa Garaiko lehendakari berria; beti ere, askoren iritziz, biburukoa da datozen urteetan gobernatuko omen gaituen exekutiboa. Madrilgo giro politikoari kasu eginez gero, iraupen laburreko gobernu baten aurrean egon gitezke. Hala ere, Madrilgoa hauteskunde egutegi 'egoki' batek konpon dezake, gauzak

honela eskandalu horien guztien nafar trama berandu baino lehen zurutua geratuko da. Bistan denez, era batez edo bestez, sisteman txertaturik egon direnei ez zaie batere komeni dagoen guztia argitzea, batzuk barkamenaz mintzo dira, eta oso gutxi kritikatu du eskandulu horietako akusatuek jasan duten tratua berezitu. Kameran aurrean estatuko terrorismoaren apologia eginda ere, libro liburu, 'estatuaren statusa' nonbait.

Eskandaluak baino barruko indar eragileak izan ditezke gobernu berriaren iraupena ezbaian jar dezaketenak. Demokrazian demokratenak

bihurtu zaizkigun 'sanedrino-ko jauntxoek' bestelako agintea nahi dute. Datozen hila-bete edota urteetan argituko da zertan den gobernuko alderdiek aldarrikatzen duten gizarte oinarri zabala, sanedrinoak jaiok baitira oinarriaren iritzia bideratzen. Historiari so egin besterik ez dugu egin behar. Honezker, gobernu aukeratu izanen da, parlamentari batzuek ikusiko ez dutena. Behar den tokian egonen ote dira HBkoak? Ba al da aurreko egunean behar zuen tokian egon ez zenik? Menturaz, erantzunik merezi ez duten galderak. Alta, ez al da larria horrelakorik gertatzea?



ASTEKO PERTSONAIAK



Miguel Indurain
Txirrindularia

Bostgarren aldiz jarraian irabazi du Miguel Indurain txirrindulari Batarrabiarrak Frantziako Tour-a. Hau dela eta, omenaldi beroa jaso zuen astelehenean. Bazkaria Gipuzkuako Altza herrian egin zuen, babarrunak eta txuleta. Arratsaldean milaka iruindarrek agurtu zuten Nafarroako Jauregiara joan zen bitartean. Han, Juan Cruz Alli Nafarroako lehendakariak egin zion ongi etorria eta urrezko liburuan sinatu zuen. Une unkgarrienak Atarrabiakoak izan ziren. Bertako Udaletxean udalbatzak hartu zuen eta txirrindularekin ibiltzen hasi zen taldeak —Villaves C.C.— eta Indurain Peñak ere parte hartu zuten omenaldian. Garaipena hemendik bost hilabetetara izanen duen haurri eskaini zion.



Javier Otano
Nafarroako lehendakari berria

Javier Otano sozialistak atzo eguerdian hartu zuen Nafarroako Gobernuko lehendakari kargua, Juan Cruz Alliri errelebo hartuz. Otano Nafarroako lehen koalizio gobernu buru izanen da. Postua bere taldeak, CDNk eta EAk Jgindako akordiarengatik eskuratu du 23 botu eskuratu ondoren. Javier Otano tuterarra da, 49 urte ditu, ezkondu dago eta bi seme-aita ditu. PSNko kidea Nafarroako Komunitateak duen bostgarren presidentea da, lehen koalizikoa, esan bezala, eta, akaso, ezezagunena. Ibilbide politiko guztia partiduan egin du tuterarrak, baina ez da inoiz nabarmendu bere ideiak edo proposamenengatik. Mihi gaiztoek aipatzen dute erabakiak hartu baino PSNk agintzen duena egingo duela Otanok...

EKITALDIAK



Dantza Folklorikoen Nazioarteko IV. Jaialdia burutzen ari da egunotan Nafarroako herri desberdinetan. Lodosa, Korella, Tafalla, Azkoieta eta Lizarrako Udaletxeak antolatuta oraindik astelehenerarte herri desberdinetako dantzak ikusteko parada dago. Gaur, Lizarrako Foru plazan gaueko hamarretan Bielorrusiatik etorritako Estatuko Dantza konpainia arituko da. Talde hau bihar ere, larunbata, ariko da Tafallako Zezen plazan gaueko hamar terdian. Ordu erdi lehenago baina Azkoiengo Zezen plazan, Cubako 'XX Aniversario- Ciego de Avila' konpainia ikusteko aukera dago. Bihar ere, toki eta ordu berean, Hungariatik etorritako 'Hegyaija' konpainiak aurkeztuko du bere lana. Etzi, igandea, azkoiendarek Bileorrusiako Estatuko Dantza konpainia ikusteko aukera izanen dute. Egun berean eta hamarretan ere baina Korellan, Kubako 'XX Aniversario Ciego de Avila' konpainiaren dantzak izango dira ikusgai.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenera ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



HERRIZ BERRI



Korella



Hungariako dantza taldea ariko da hainbat herritan egunotan.

Nazioarteko dantzak gaur hasiko den Aste Kulturalaren barnean

KORELLA

Gaur hasiko da Korellako XIII. Aste Kulturala, Boregan Zentronikoko eskultorearen erakusketaren inaugurazioarekin. Heldu den ostegunera arte luzatuko den aste kultural horretan dantza izango da protagonista nagusia, Alhamako herrian Hungaria, Kuba eta Bielorrusiako taldeak izango baitira zazpi egun hauetan zehar. Egitarauak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du.

Gaur, beraz, Boreganen eskulturek emango diote hasiera aste kultural honi. Boregan ezaguna da inguru osoan Fitero, Korella, Tuter eta San Adrianen, besteak

beste, paratuta dituelako bere lanak, eta bere erakusketa Kultur Etxean egonen da ikusgai, arratsaldeko 6.00etatik 9.00ak bitarte. Bihar, larunbata, 'Bienvenidos al Oeste' izeneko antzezlanaren taularatuko du Kollins Clown antzerki taldeak, arratsaldeko 7.00etan Maria Teresa parkean. Gaueko 10.00etan, bestalde, Kubako XX Urteurrena izena daraman dantza taldeak eskainiko du emanaldia zezenplazan.

Igandean, hilak 30, Korellako Musika Bandak kontzertua emango du eguerdiko ordu batean El Crucero-n, Ricardo Marcillaren zuzendaritzapean. 'Bandaren igandek' izeneko zirkloaren barnean selezio bat interpretatuko du bandak. Gauean,

10.00etan, Hungariako Hegyalja dantza taldeak bere herrialdeko dantzen selezioa taularatuko du zezenplazan.

Astelehenean, Bielorrusiako Dantza Konpainiak —hango dantza talde garrantzitsuenak— dantzak interpretatuko ditu zezenplazan, eta asteartean, Carlos Gilek zuzenduriko Gasteiz antzerki taldeak, ordu berean, Dario Fo-ren 'Aquí no paga nadie' izeneko komedia aurkeztuko du zezenplazan. Asteazkenean Antzerki Klasikoko Konpainiak 'El secreto de Keops' izeneko antzezlan eskainiko du, zezenplazan eta 10.00etan, eta ostegunetan, ordu eta toki berean, Trivia Teatro taldeak 'Memoria de Bolero' lana antzeztuko du.

Oieregi

Zurkaitza eta Kanpalekuen Elkarteak, Bertizko Partzuergoaren kide berriak

OIEREGI

Ohizko Batzarre Nagusia egin zuen joan den astean Bertizko Partzuergo Turistikoak, eta lehendakari berria hautatu zuen: Francisco Oiarzabal Irigoien izango da Baztan-Bidasoako herri gehienak biltzen dituen erakundearen burua.

Batzarrea uztailaren 20an egin zuten, eta lehendakaria hautatzeaz gain, beste zenbait erabaki garrantzitsu onartu zituzten bazkideek. Bi elkarte berrik parte hartuko dute Bertizko Partzuer-

go Turistikoan aurrerantzean: Zurkaitza Kultur Entitateen Elkarteak —Lausarra, Ttipi-Ttapa, Behinpin, Doneztebeko Euskaltegia, Baztandarren Biltzarra Elkarteak eta Xorroxin Irratiak osatuta—, eta Kanpalekuen Elkarteak —Josenea Kanpalekua (Dantxarinea), Baztan Kanpalekua (Erratzu) eta Aritzigain Kanpalekua (Sunbilla)—. Bi bazkide berri hauekin, zortzi dira Partzuergoan parte hartzen duten elkarteak —aurreko biak eta Landetxe Elkarteak, Hotelak, Jattetxeak, Merkatariak, Ostatuak

eta Zerbitzuak—. Zurkaitza Elkarteak aurreko osatu da inguruan, eskaintza kultural nolabait koordinatua eta oparoa eman ahal izateko.

Ohizko Batzarre Nagusian, bestalde, administrazio kontseilu berria osatuko duten kideak izendatu zituzten. Partzuergo osatzen duten 19 udalen ordezkariak publikoaz ondoko udaltako ordezkariak arduratuko dira: Baztan, Bera, Lesaka, Elgorriaga, Urdazubi, Sunbilla, Arantza eta Iturengoak, hain zuzen ere.

Oskotz

Txapel jaurtiketa herriko jaien barruan

OSKOTZ

Oskozko jaien lehen eguna izan zen atzo, eta gaur izango dute segida goizeko hamaiketatik aurrera izango den kalejiraren bidez. Eguerdiko ordu batean mus eta partxis txapelketen hasiera izango da, eta seietatik aurrera areto-futbol partiduak, gazte mailan. Zazpi t'erdietan txokolatada izango da denendako, opil eta guzti, eta bederatzietan hasita Eklipse taldearekin dantzaldia, goizeko ordu txikiak jo arte.

Bihar, larunbata, kalejira izango da goizeko hamaiketara, eta eguerdian, herri krosa. Ordu batean txapel jaurtiketa izango da —aurten IV. ekitaldia da—, eta arratsaldeko seietan beste txapelketa, areto-futbola: Xabi Oderiz II. Memoriala izenekoak. Zazpi t'erdietan dantzariak ariko dira plazan, Orritz taldea hain zuzen, eta bederatzietatik aurrera dantzaldia izanen da Elurte taldearekin. Hamarretan herri afaria izango da plazan, eta ondoren berriro dantzaldia, goizeko bostak arte. Orduantxe izango da txistorrada, nahi duten guztien dako.

Igandean, hilak 30, herri mezak zabalduko du egitaraua, eta eguerdian herri kirolak izango dira. Ordu batean mus eta partxis txapelketak egingo dira, eta seietan haurren dakoak. Zazpitan mus eta partxis txapelketetako finalak jokatu dira, eta zortzi t'erdietan dantzaldia, Paradis taldearekin.

Deierri

Uda honetako lehen sutea asteartean

DEIERRI

Nafarroak lehendabiziko sutea izan zuen joan den astean, hiru kilometroko zabalera zuen fronte batek Deierri-Hiriberri, Aritzaleta eta Erriezurako inguruak kaltetu zituen. Sua ibintze batzuk erretzen ari zirela hasi zen, baina segituan, zegoen haize gogorra zela eta, zabaldu egin zen eta Aritzaleta eta Erriezuraino heldu zen goizean. Kalteak ez ziren oso handiak izan, baina Erriezurako kanpina hustu egin behar izan zuten, eta Aritzaletako biztanle batzuek utzi egin zituzten etxeak, kea atean baitzuten. Kalte handienak nekazariak izan zituzten, lasto fardel franko erre zirelako, eta bi gaztek suteak amatatzean zauri arinak izan zituzten.

Kartzelako gala

Juan Kruz Lakasta

Presoen umorea, ezezagun hori (IV)

Intsumitu presoen kolektiboan badugu Kopenhageko Franz doktore orojakilearen parekoa den jakituna, Iturramako Usetxi doktorea. Hain zuzen ere harengana jo nuen 'Atea', gure kolektiboaren ziri-sartzerik zaharrenaren jatorria ezagutzeko asmoz. Argitu zidanez, aipatu txantxa kartzela bera baino zaharragoa da.

Usetxiren arabera, gaur egun ezagutzen dugun kartzela XIX. mendeko asmakizuna da. Rousel izeneko 'Kristau integristari' bururatu omen zitzaion zoritxarreko instituzioa. Doktorearen esanetan, «filosofia judeo-kristau-mono-teista-zapaltzailearen» ildoari jarraiki, Rouselek estreinakoz proposatu zuen kartzela sufrimendu tresna gisa, egindako bekakuen purgatzaile eta purgatoki gisa. Ordurarte presoak zigor fisikoaren, erbestearen edota isunaren zain izaten ziren giltzaperaturik. Itxialdia, beraz, ez zen zigortzat hartzen».

'Atea', esan bezala, hori guztia baino zaharragoa da. Usetxiren irudikoz, «seguru asko ziega ba-



tean sartu zituzten lehendabiziko bi presoek asmatu zuten. Horren lekuko, Santimamiñeko kobazuloetan topatutako margoa. Horretan historiaurreko sasigizon batek harkaitz baten laguntzaz atearen adarjotzea egiten dio antza denez zigorturik dagoen bere kide bati».

Txantxaren jatorria argitu eta gero, haren mania azalduko dut. Ziega bateko atea krisketaz itxi behar da kanpotik, ziegan bizi direnak barruan direlarik. Eragiten duen barregureak harreman zuzenki proportzionala du biztanleek ateratzeko duten premiarekin. Bere sinpletasuna dela-eta, gure txantxen artean arrakastatsuenarikoa da.

Beraz, badakizu, zure nobio preso ohiak etxeko atea kanpotik ixten badu zu barruan zaudela, ez ezazu pentsa kartzelan eman zuen denbora luzean abandonatu ez bazenuen ere une horretan bertan berataz paso egingo duzula; izan ere, presoen umore ezezaguna izanen da hori, besterik ez. Portzietan, Usetxi doktorea heldu den abuztuaren 2an aterako da kalera, goizeko zortziak aldera. Bihotz-bihotzez, askatasuna bete-betean goza dezala opa diot.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

«Carlosek egiten badu, burutzen baldin badu daukan asmoa, Everestera lehen aldiz igotzeak adinako garrantzia izango du. Urteak beharko dira berriro errepikatzeko». Argi eta garbi mintzo da Natxo Barriuso 25 urteko eskalatzailea, Carlos Garcia-rekin irail aldera Yosemite elkartuko dena. «Era askean egun bakar batean egiten baldin badu asko da, eta horretaz gain bistan egiten badu, izugarria izango litzateke, sinestezina ia».

Ikusmin handia sortu du Euskal Herrian dagoen eskalatzaile-rik onenetakoak listoa hain altua jarri duela ikusteak. Ikusmina jakiteak aurtengo lorpenik handienetakoa izango zela, eta mito bat erori egingo zela. Ikusmina pentsatzeak eskaladaren azken urteotako desafiorik handienetakoa nafar batek gaindi dezakeela. Aukerak? Batzuk. «Carlosen gaitasuna apartekoa da. Egin izan ditu inork egin gabeko gauzak». Horren lekuko da Riglosen (Huesca) egin zuen bide integrala (aseguratu gabea).

Asmoa erraldoia da, ez da dudarik. Bederatzehun metroko eta 34 luzeko granitozko paretan dago saiatu beharrekoa, 'Kapitaina' deritzan bloke izugarri ederrean. Han, 'The Nose' bidea da helburua, eskalatzaile askoren betiko ametsa, proiektu zaharra. 1980ko hamarkadaren hasieratik soilik lau luze gelditzen ziren era askean egin gabe. Ordurako bide guztia ez zen, horrelakoetan gertatzen ohi den bezala, gizon bakar baten lana izan, motibazio handia zuten zenbait eskalatzailek egindako lanen ordaina baidzik.

ETSIAZTEKO MODUKO BIDEA

'The Nose' bideak arazo askotxo gordezten baititu bere baitan, 'Desnivel' mendi aldizkariako erreportaia batean zehazten den bezala. Ez da bakarrik eskatzen duen lan fisikoa. Motibazio handia behar da benetan 7c edo 8a-ko bide batzuk kateatzeko 600 metroko altura batean, bi *vivac*-en artean. Gainera maisu izan behar da granitozko paretan eskalada arloan, eta teknika guztiak menperatu behar dira. 'The Nose-k', frankotan, etsiarazi egin ditu aspiranteak: «askotan bero gehiegi, hotz gehiegi, hezetan gehiegi dago...»

Horregatik, 1957an Warren Harding-en taldeak Kapitainaren bide hau zabaldu zuenean Himalaya mailako igoeratzat hartu zuten adituek. Urtebeteko lana behar izan zen dena lotzeko, eta

Carlos Garcia eskalatzaile nafarrak irailean ekingo dio Yosemiteko (EEBB) Kapitaina paretako 'The Nose' bidea era askean eta bistan kateatzeari. Dudarik gabe, eskalatzaileen munduan aurtengo egitasmorik garrantzitsuenetakoa. Bide osoa soilik Lynn Hill eskalatzaile mitikoak egin ahal izan du, baina Carlos bistan saiatuko da, hau da, aurretik zatirik zailenak praktikatut gabe.

Carlos Garcia, zeruaren bila


horietatik 45 eskalaten eman zuten taldeak. 1975an John Long partaidea zuen talde batek egun bakar batean egin zuen paret osoa. Ray Jardine aitzindaria izan zen era askea erabiltzeko orduan, eta 4. kanporaino heldu zen. 1993an Nancy Feagane eta Sue McDevitek 17 ordutan egin zuten bidea, eta beranduago, Lynn Hill eta Hans Florinek 8

saiatuko da Carlos bidea eginen— Kalifornia, Utah, Arizona, Nevada eta Oregonen ibiliko dira, estatu hauetako eskalada guzterik interesgarrienetakoetan— Yosemite, Joshua Tree, Indian Creek, American Fork...— airtzeko eta entrenatzeko. Irailean bertan joango dira Natxo Barriuso, Unai Alvira eta Roberto Garcia nafarrak. Hauek Carlosen

eskalada zaharrena edo garbiena dela esan daiteke, eskalatzaileak harkaitzaren formari egokitu beharra daukalako, horretarako eskura dituen bideak aprobetxatuz.

Zailtasun teknikoek gain, tokiak berak markatzen ditu bere legeak. Natxo Barriusok bide osoa egin du behin baino gehiagotan era artifizialak erabiliz, eta

Oraindik gehiago: jendea. Hau da Yosemite—eskalatzeko alderdi mitikoa— osoko biderik klasikoenetakoa, eta jende asko egon ohi da paretan zintzilik. Horrek zailtasunak gehitzen dizkio askean egiten ari den eskalatzaileari, gerta daitekeelako pitzaduraren toki zailenean atzamarrrak sartzeko tokirik ez izatea, aurretik sartutako arrakalakoe-



Carlos Garcia, Estatu Batuetara abiatu aurretik, Etxaurin.

ROBERTO GARCIA

ordutan burutu zuten. Azken koska 1993ko irailaren 19an estutu zuen Lynn Hillek berak. 23 ordutan era askean kateatu zuen 'The Nose'. Hil bereko 14 eta 16 bitarte bide osoa egin zuen. Horretarako gogor saiatua zen abuztuan zehar.

Carlosek hori bera baina bistan egin nahi du, hau da, aurretik bidea entseiatu gabe. Horretarako maila handiko taldearen laguntza izango du iruindarrak. Han dira dagoeneko berarekin Fausto Garate azkoitiarra eta Carolina Alvarez, idazkaritza eta komunikazioak eramango dituen. Bi hilabeteotan—irailean

atzetik joango dira luze guztietan, laguntza—ura, materiala—ematen. Ilusio handia ez da falta, aseguruak—Nafarroako Caja Ruralek egin dizkie— eta materiala kenduta, bidaia osoa beren poltsikoetatik ordaindu behar izan baitute, baina merezi duela uste dute denek.

GRANITOKO PARETA ARRISKITSUAK

Ez dira altura eta paretak berez dituen konplexutasun teknikoak bide honen zailtasun bakarrak. Granitoko paretan eskalada ohi baino arriskitsuagoa eta zailagoa da, pitzadurretan barna egiten den progresioan zehar eskalatzaileak berak aseguratu behar duelako bere burua, eta materiala konplexuagoa eta paratzeko zailagoa delako. European bide gehienak ekipatuta daude, baina Estatu Batuetan ez da horrelakorik. Gainera, pitzadurretan egiten den

badaki aski ongi zer den paret famatua egitea. «Oso zaila da segurtasun handia eramatea, arrisku handiko bi zati dituelako. Hori dela eta, zailtasun handiak ditu bideak». Horri gehitu egin behar zaio luzera bera, eta inguru horretan egin izan ohi duen eguraldia. «Erdialdean harrapatzen bazaitu eguraldi txarrak, ez duzu irtenbiderik, 'Great Roof' izeneko tokitik aurrera ez duzulako jaisterik. Beraz, arropa eta janari gutxi eraman behar da, azkar joan ahal izateko, baina bestetik eguraldiaren arazoa duzu. Iaz mutiko batzuk erdi izoztuta atera ziren bertatik».

kin beteta izatea. Hori ahal den neurrian ebitatzeko Natxo Barriuso ahaleginduko da arrakalakoen kenten, soberan daudenak bederen.

Igoera hau grabatzera Carlos Garciairen anaia irailean joango bada ere, taldean ez dute oso garbi azkenean zuzenean egingo ote duten. «Askotan ondoan egon behar izatea, hotsak, jendeak berak traba besterik ez dizu egiten, eta agian onena ondoren grabatzea izango da, bidea osatzen baldin bada behintzat. Irailean bertan bidea errepikatze zailtasun handirik ez da izango».

1 1957. urtean Warren Harding-en taldeak Kapitainaren bide hau zabaldu zuenean Himalaya mailako igoeratzat jo zuten mendi munduko zenbait adituk.

G ranitoko paretetan eskalada ohi baino arriskitsuagoa eta zailagoa da, pitzadurretan barna eskalatzaileak berak aseguratu behar duelako bere burua.



PARTAIDEAK

● **Carlos Garcia Bello:** 28 urte, horietariko 10 eskalatzen. 8a+/b-ko maila. Parte hartu izan ohi du eskalada lehiaketetan eta 1987an 4. izan zen Munduko Txapelketan. 1988an izan zen Kirol Eskaladaren Munduko Kopan, eta urtero parte hartzen du maila handiko nazioarteko txapelketetan. Aurten Espainia-ko Kopan eta Munduko Txapelketan emana du izena. Frankotan izan da telebistarako saio espezializatueta, eta bera da Nafarroan dagoen eskalataile profesional bakarra. Egun Señorío de Zuasti kirol eremuan eskalada irakaslea da. Zailtasun handiko bideak egin izan ditu bere ibilbidean zehar, eta horien artean azpimarratzekoa da Huescako Mallos de Riglos-eko 'La Visera' bidean 1994urtean eginiko integrala edo Yosemite-ko egini-ko hainbat bide. Halaber, Etxauriko paretetan mail handiko hainbat bide ekipatu egin izan ditu.

● **Fausto Garate:** 26 urte, Azkoitian (Gipuzkoa) jaioa. Nafarroako Mendi Kirolak eta Eskalada Federaziokoa. Zortzi urte emanak ditu eskaladan, eta 7c-ko maila dauka bistan. Esperientzia handia du paretan —Riglos, Ordesa, Pirinioak, Montserrat, Midi D'Osseau, eta abar...—. Berak parte hartuko du Sokaldi nagusian, hau da, Carlosekin batera egingo du ibilbidea, edozertan laguntzeko.

● **Natxo Barriuso:** 25 urteko iruindarra. Zortzi urte daramatza eskaladan, eta 7b egina du bistan. Gaur egun 'Arista' paretetan egin beharreko lanetarako enpresan lan egiten du, eta aditua da paretan handietako zailtasun handiko bideetan, hala nola Yosemite edo Alpeetan. Bigarren sokaldian joango da, materiala eramateko.

● **Unai Alvira:** 22 urteko gazte honek 7c egina du bistan, eta sei urte daramatza soka gainean. Paretetan egin beharreko lanetarako enpresan lan egiten du, eta parte hartu izan du kirol eskaladako txapelketetan. Bigarren sokaldian joango da.

● **Roberto Garcia Bello:** 30 urteko iruindarra, bederatzita urte daramatza eskaladan, eta 7b egina du bistan. Egun TVE-Nafarroan lanean da, teknikari. Eskaladan esperientzia handikoa, parte hartu zuen ONCEn 'Aconcagua 94' espedizioan eta bera izan zen horren grabazioaren arduraduna. Espedizio honetan ere grabaketa lanez arduratuko da.

● **Carolina Alvarez:** 33 urte eta horietarik 6 eskalatzen, Hezkuntza Berezia irakasten du. Espedizioan ekoizpena, idazkari-tza eta komunikazioez arduratuko da.

Himalaya mailako eskalada

CAPITAN HORMAKO "NOSE" BIDEA (6b [5.11], A3 / 8a+ [5.13b])


Hau da bide osoko funtsezko tokia. Oso arrakala estua da, eta amaieran diedro bertikal baten forma duen sabai bat dago. Era artifizialean ointokiak sar daitezke, baina era askean egiteko zailtasun handiak izaten dituzte eskalataileek, oso toki txikiak dagoelako artesian. Beraz, arrakalako oso txikiak erabili behar dira-zentimetro batekoak edo-, eta zenbait tokitan gelditzen den tartea estuegia da eskalataileen hatzamar lodientzako. Horregatik, besteak beste, izan zen emakume bat eskalatu zuen lehendabizikoa, eta horregatik saiatuko da Carlos Garcia, hatzamar txikiako eskalatailea delako.

Arrakala zabaleko zatia. Erraz samarra egitekoa, hatzamarrek ondo sartzen direlako, eta azkar egin daitezkeelako. 7a-koa da zatirik zailena. 14.punturaino helduta bi bide daude: Texas Flake hartzea, edo Jardine Zeharkaldia. Texas Flake ezin da era askean egin, rappela egin behar delako. Carlos Garcia hartuko duen bidea Jardine Zeharkaldia izango da, beraz. Hau aurreko bidea baina zailxeagoa da, baina ez oso konplikatu.

Bide osoko zatirik arriskutsuena. 700 metroko alturan gaude dagoeneko, eta granitozko plakak estuak eta finak dira oso. Erorikoaren arriskua handia da, soka plaken artean sartzen ohi da, eta eroriz gero kolpea gogorra da oso. Jende asko hil da zati honetan.



Yosemite Arana



Arrakala itsua da, zentimetro bat baino txikiagoa. Nekea handia da 900 metroko altura dago, hor nonbait, eta arrakalakoak behetik sartu behar dira, deseroso beraz. Bada beste arrisku bat: oso txikiak behar dute izan, eta ez da ikusten ahal erabat ongi kokatuta gelditu ote diren.

Hau da bideko beste zati funtsezkoa. 8a+ gradukoa da, eta era artifizialean A3ko diedroa da, oso zaila beraz. Gainera, aseguratze zailtasunak daude, harkaitzan ez dagoelako krokagailurik. Era askean eskalatu gero, norberak sartu behar ditu aseguratze gailuak, baina horrek toki asko kentzen du hatzamarrek sartu ahal izateko.

Kritikontzi

ETB1; Euskaldunok zontzoak ote?

XANTI BEGIRISTAIN

Jarraian azaldu behar dizue-
dan gaiak arduratuta nauka as-
palditxo hontan; begira, ez al du-
zue gogoratzen garai batean be-
hintzat, eta gaur egun ere bai
seguraski ikastegi gehienetan
ikasleren bati zer bait buruan sar-
tzen ez zitzaionean errepikaraz-
ten zitzaizkiola gauzak hainbat
aldiz gogoan hartu arte edo ikas-
teko ahalmenik ez zuela argi utzi
arte? Ongi ba, ni egoera larri hor-
rretan nago, eta neure buruari
galdetzen diot zontzoiloa ote
naizen, Zergatik? Ba, begira
ezazue. Neronek, betidanik argi
izan dut ez dudala buru oso azka-
rra; ez naizela eredu ona, alegia.
Baina kontxo!, hortik artaburua
izatera ere tartetxo dexentea da-
goelakoan nago; txikitari, behi-
nik behin, beti gaintu izan ni-
tuen adimen eta psikologi testak.
Baina ETB1eko jaun-andere ja-
tortxo horiek ordea amorratzen
dira nonbait, guk beraien pro-
gramak behin eta berriz, eta baita
hiru eta lau aldiz ere ikus ditza-
gun. Guk beren borondate ona
eskertzen diegu, baina, Jainko-
arren! horren babaloretzat jo-
tzen ote gaituzte ba? Eta, irakur-
le maiteok, ondoren jarriko diz-
kizuet adibidetxo batzuk, hobe
uler dezazuen nire zozotasun-
arazoa:

1.— Eta urrutirago joan gabe,
1995eko uztailearen 2an heme-
ntxe dituzue ETB1-ek errepika-
tutako programak: 'Egi Bidean',
'Bertsoz bertso', 'Baietz barrez
lehertu', '22ra', 'Bi eta bat' eta
'Algara'.

2.— Uztailearen 7ko zerrenda:
'Hor dago kokka', 'Euskal He-
rritik', 'Goenkale' (bi atal),
'Thalassa Itsasoa', 'Superzen-
tzuak', 'Duplex', 'Beni eta Ma-
rini', 'Goraintzi', 'Lehenengo
musuak', 'Parker Lewisek ez du
sekula galtzen', 'Nire bi aitak'
eta 'A ze para'.

3.— Beste egun batzuetan:
'Lola eta bere erleak', 'Urak da-
karrena', 'Euskal txirindulari-
tzaren historia', 'Patxarana', eta
abar (Barka nazala Iñaki Zar-
raoak bateren batean hanka sar-
tu baldin badut, baina ez dut uste
asko izango direnik).

Beste gauza pare bat ere na-
barmenduko nahi nuke. 'Goen-
kale' atalak urte osoaren zehar
jarri dituzte ilunabarretan eta



Jende asko kexu
da esanez beti kiro-
lak, marrazki bizidu-
nak edota programa
errepikatuak ikusten
direla ETB1an».

errepikatu dituzte biharamuneko
eguerdian eta larunbatetan,
baina hala eta guztiz ere berrito
ematen ari dira ikasturtean ba-
rrera gaiak gaintu ez zutenen-
tzat, hau da, irailean gaintu
ahal dezaten; 'eskola' bereziak
eta gainera dohainik! Ez al dira
oso potxoloak? Eta 'Bertsoz ber-
tso' programaren kasuan ere,
konturatuko zineten 'txakur'
bera dela izen eta aurkezle ez-
berdinekin, ezta hala? Bai, uste
dut gehienok ez garela horren ar-
bilore, aizu!

Bestaldetik, ez dut baloratu
nahi programaren kalitatea, ho-
rretarako kritikari profesionalak
baitaude, baina nahiko nabaria
da uztaile honetan bonbakatzen
ari zaizkigula futbolarekin nahiz

eta liga bukatu zen, txirindulari-
tza eta beste zerbaitekin. Beraz,
16-17 orduko programazioari
kentzen badiogu esan dudan
guztia, zer gelditzen zaigu?
Gauza berri askorik ez.

Beste jende asko kexu da esa-
nez beti kirolak, marrazki bizi-
dunak edota programa errepika-
tuak ikusten direla ETB1an. Ah!
eta pelikula gutxi eta kaxkarrak.
Dena den, hori uste dut gertatzen
zaiela ez izateagatik bideorik
grabatzeko benetan interesatzen
zaiena. Ni honelaxe defenditzen
naiz. Baina, agian denek ez dute
bideorik edukitzeko obligazio-
rik...

Bukatzeko, hausnarketa-gal-
dera batzuk: hau guztia dela eta,
ez ote zaio gorrituko aurpegia
pixka bat I. Zarraoari? Niri go-
rrituko litzaidake. Ez ote da izan-
go ETB2ri aurrekontu handiagoa
jarri diotela eta orain ETB1 ahiz-
pa txikia bezala geratu zaigula?
Hobe oker banengo! Konponbi-
deak: edo bideoa erabili edo bes-
tela errepikatzen 'zigorra' buruz
ikasi arte. Gainerakoan, maso-
kak izan nahi ez baduzu ez piztu
ETB1. Baina, hori al da komeni
zaiguna, Zarraoa Jauna?

Klasiko bitxi arrant klasiko

Joxemiel Bidador

Euskal Bibliografia bildumen historia apurra (I)

Larramendiren hiztegitik Salazarren 'Biblioteca del bascofilo...'
liburua argitaratu artio



Jakina bada arras zail lekigu-
keela, euskal literaturaren ingu-
ruan zer edo zeren berri nimitoren
bat idoro nahi izan ezker, izan
ere, eskuliburu, bilduma, antolo-
gia etabarren horrialdetan barna
abiatuta, hamaika izen eta lanen
aiputik at ezer guti zeazten baita.
Non edo non errepertorio bibli-
ografikoren bat ager daiteke, baina
benetan urri hagi gehienetan.
Hortaz gainera, ezin da ahantzi
euskal gizarte ezjakin honetan,
nahikoa lan badagoela oraindik
izenik aruntenenak ezagutzera
emateko, eta guziz propioa Gaz-
telako erdaldun analfabeto baten-
dako Gongora, Unamuno edo Ba-
roja ezagutzea suertatzen deno,
zoritarrez ez da gauza berbera
gertatzen euskaldun letu batekin
Ubillos, Archu edo Moguelen
ginean itauntzerakoan.

Harira gatozelarik, ezaguna
dateke Garagorriko Manuel Lar-
ramendiren eskutik 1745. urtean
ageri *Diccionario trilingüe del
castellano, bascuence y latin* hiz-
tegi hirukoitzaren sarreran dato-
rren euskaraz izkiriatutako zenbait
lanen erreseña, ordurako ando-
indarrak aunitz autore ez aipa-
tu ere, ekartzen zituen hamarren
artean oso eskuragarriak ez ziren
eta ez diren zenbait lanen berri
bazuen, esate baterako Nikolas
Landuchio hiztegitigile italiarrak
XVI. mendeko erdialdean eta
Gasteizko hiriaren inguruan egi-
niko *Dictionarium linguae can-
tabricae*, edo 1596. urteko *Refranes
y sentencias* izenburuko bizkai-
lan ederra.

Hala ere, ezagunagoa eta zuze-
nagoa gerta liteke Zabala abaren
1856. urteko *Noticias de las obras
bascongadas que han salido a la
luz despues de las que cuenta el
padre Larramendi*. Lantto hau
izenik gabe agertu zen Donostian
esan urtean Bonaparte printzearen
eskutik, eta On Jose Manterolak
Agustin Iturriagari egotzi zion
arren, Larrinaga aita frantxisko-
tarrak argi utzi zuen idazkiaren
aitatasuna. Bertan 52 liburuen be-
rri eskeini zigan Bilboko Añiba-
rroren komentukideak.

Zenbait urte beranduxeago
euskal bibliografiari buruzko la-
nak ugaltzen hasi ziren eta beha-
rrezko zaigu oso aipatuak ez diren
zenbait bilduma hona ekartzea.
Lehenengo bat Nicolas de Soralu-
ze eta Zubizarretaren *Catalogo
de las obras vasconavarras* genu-
ke, Gasteizen 1871.ean agerikoa.
Sei bat urte beranduxeago Angel
Allende Salazar zenak *Biblioteca
del bascofilo, ensayo de un cata-
logo general sistematico y critico
de las obras referentes a las pro-
vincias de Vizcaya, Guipuzcoa,
Alava y Navarra* izenburuko 483
orrialdetako saioa inprimarazi
izan zuen Madrileko Manuel Tel-
loren etxean 1887.ean, aurreko
urteko Españako sariketa publi-
koan irabazle gerta zena. Estatuak
berak inprimaketaren gastuen ar-
dura bereganatu zuen. Madrileko
diputatuen kongresuko idazkaria
izan zen gernikar honen lana beren
2027 sarrerekin, lehengo bibli-
ografia orohartzaitzetak jo dezake-
gu.




■ 'Iruñeko hiria' xake torneo irekiko lehenengo
ihardunaldiko partida, 1994ko abenduaren 27an
jokatua.

Iñigo Otazu, 1.730 ELOkoa (Euskal
Herria)-**Ruslan Pogorelov**, 2.415 ELOkoa (Ukrai-
nia).

1.e4,c5; 2.Ac4,e6; 3.Zc3,a6; 4.a4,Zc6;
5.Zf3,Zf6; 6.d3,d5; 7.d5,d5; 8.Ab3,Ae7; 9.0-0,
0-0; 10.h3,h6; 11.Ge1,Ae6; 12.Ze2,Ad6;
13.Af4,Af4; 14.Zf4,Dd6; 15.Ze6. Erasorako zuta-
bea irekitzen du aldaketa desegoki honek. 15...e6;

16.De2,aG-e8; 17.c3,Zh5; 18.Zd2,Zf4. Leku polita
lortu du zaldiak. 19.De3,Gf6; 20.Ad1,Gg6; 21.g4.

Irekiera hau oso arriskutsua da. Baina txuriek ez
dute beste irtenbiderik izan. Beltzak sukaldean
sartuta daude. 21...Gf8; 22.Dg3,h5. Erasoa ez da
gelditzen. Posizio txarrean daude txuriak:
23.Ge3,g4; 24.g4,Gh6; 25.g5. Ikus Koadroa. Dama
galduta dago. Txuriek ez dute korapiloo askatzen
jakin. 25...Gh3; 26.Dg4,Ze5; 27.Dh3,Zh3 xa;
28.Gh3,De7; 29.g6,Dg5 xa. Zaldia galtzen da, eta
partida ere bai. Oso bizkorak izan dira beltzak. ■



Bunuzen, Nafarroa Behereko herri txiki honetan lehen animazioak egin zirenetik 1977an, urteak iragan dira baina hastapenean finkatu zuten helburuari ekiten diote kanpalekuaren arduradunek. Parisen bizi arren, Jean Luc Berhok atxikimendua erakutsi nahi dio barnealdeari ez ohizko animazioak eginez.

Inxauseetako soroak ondu dira

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Duela 20 urte, kanpaleku-antzoia sortu zuen Jean Luc Berho Inxauseetaren zuzendariak 150 biztanleko herrixka batean, Bunuzen. Benetako apustua egin zuen, horrelako antolakuntza bati lotuz, husten ari den barnealdean, turista gehienak kostaldean geratzen baitira. Ohiturazko sendetatik ateraz, beste aterbe mota bat nahi zien eskaini udatarrei, eta gunearen berezitasuna baieztatu zuen 1986az geroztik haur atzeratuen harrera eginez. Hogei urteren buruan, helburua lortu duela pentsa daiteke, ikusiz tokiaren bakea eta sosegua.

Era berean, animazio bereziak sortu zituen lagun batzuekin eta urtez urte eskaini dituzte kantaldi-kontzertu zoragarri, mintzaldi aberats edo mahainguru bizi-biziak. Duela urte pare batzuk, finkatu dituzte 'Inxauseetako soroak' izeneko hitzorduak; geroztik, bi urtero, kanpalekua eztabaidaren gune bilakatzen da.

BUNUZE ELKARTASUNAREN GUNE Aurtengo Inxauseetaren soroak agorriaren 11n bilduko dira Bunuzen, eta aktualitateko gai nagusiaren inguruan egingen dira: elkartasuna. Gai garrantzitsua baina era berean nahiko zabala baita, arratsaldean izanen den mintzaldian elkartasunaren aurpegi desberdinez mintzatzeko parada izanen da. Hala nola, Mi-



Inxauseetako soroak Bunuzen daude.

guel Angel Estrella Argentinako piano jole famatuak Musika-Esperanza federazioa aurkeztuko du, adieraziz nola musika gizakiaren zerbitzuan jar daitekeen. Kanpoko populuekiko elkartasunaren lekukoa ekarriko du Solidarites Pyreneenne taldeko Jean François Cazenavek, hiru urte baitaramatzate laguntza bilduz Bosnia, Txetxenia edo Ruandarentzat. Ekologisten berriak ekarriko ditu Bernard Theilek eta Egoitza Finkorik Gabeko arazoak aipatuko ditu Michel Frechetek.

Euskal Herriaren boza ere en-

Eztabaidak, mahainguruak eta kontzertua, elkartasunaren printzipioa goraipatzeko ez ohizko gune batean.

tzunen da 6.00etan hasiko den eztabaidan, bi adierazpen franko desberdinak ekarriko baitituzte Sauveur Bachok eta Mai Irigoienek. Amikuze Aitzina Bizi taldeko ordezkariak zehaztuko ditu eskualdean sortu diren ekimenak bizia mantentzeko herrian, eta Lokarria elkarteak ordezkariak euskal presoan egoera aipatuko du.

Eztabaidaren moderatzailea Jean Paul Liegeois izanen da, berrikerari-idazle-zinemagilea. Urtero Liegeoisek Bunuzetik itzuliñoa egiten du eta joan den urtean kanpalekuaz egindako fil-

mea aurkeztu zuen. 'Udako bariazioak Euskal Herrian' krea-zioa sortu zuen Jean Jacques Vi-mard idazlearekin toki berezi honen adierazpena Euskal Herri-tik kanpo emateko asmoz.

CHE GUEVARAREN ITZALPEAN Elkartasunari buruzko eztabaidaren ondotik, Jean Cormier berrikerariak aurkeztuko du laster plazaratuko duen Ernesto Guevararen bizi-az idatzi duen liburua. Irailean zabalduko da baina aurreko aurkezpene egingen du Cormierek Bunuzen, eta Danielle Panpuza-cek —Liburuak-Zaletasun bat argitaletxeko zuzendari literarioak— hartuko du parte eztabaidan.

Ondotik, besta egiteko momentua izanen da, kontzertu bat hasiko baita arratseko 21.00etan. Peio Ospital, Caroline Phillips et Michel Ducau-Lucart lehen zatian entzunen dira eta duela gutxi Itsasun eman zuenaren antzeko kontzertua eskainiko du hirukoteak. Beñat Axiari, Inxauseetako gomiti leiala, bigarren zatian entzunen da eta ustekabe handia hitzematen dute antolatzaileek, Cite de la Truc taldeko lau perkusionistekin ariko baita. Egitarau ofiziala sinetsiz, gaualdia amaituko da Miguel Angel Estrellarekin, baina ez da dudarik bildutako artistek sorpresak prestatuko dituztela eta besteak beste Estrella/Axiari bikotea entzunen dela aitortu zuen Jean Luc Berhok.

Jean Luc Berho: «Elkartasunak bizirik dirau inoiz baino gehiago»

L.F. / BAIONA

EGUNKARIA.— Inxauseetako soroen sustraiak urrun dira?

JEAN LUC BERHO.— Gauzak emeki egin dira. Gure harria ekartzeko Euskal Herriko krea-zio sailan, kontzertu anitz egin ditugu 1997tik eta asmoa genuen hurbiletik aztertze bizi egiten duen guztia. Eztabaidak antolatzea molde egokia iruditu zaku erakusteko gizartearen ibilmoldea. Elkartzearen ideia nagusi zen hasieran eta aktibitate artistikoen ondotik mintzaldia antolatzeko asmoa izan dugu, segida bat bezala.

EGUNKARIA.— Uda sasoia egokia ote da eztabaidak bultzatzeko kanpaleku batean?

BERHO.— Inxauseetako udatar-rrak zerbait berezien bila datoz toki honetara eta gauzak ongi iragan dira beti. Alabaina, epe

luzerako gure asmoa da animazioak urtean zehar antolatzea. Zoritxarrez, jadanik egin ditugunak gaizki iragan dira publiko bakanago ibiltzen baita neguan eta diru laguntzarik ez baitugu. Barnealdeko bizi-axolaten omen diren arduradunek beharko dute oraindik frogatu animazioa mantendu nahi dutela urtean zehar, kosta ahala kosta.


EGUNKARIA.— Zergatik hautatu duzu elkartasunaren gaia aurtengo eztabaidentzat?

BERHO.— Denetan entzuten da elkartasunaren printzipioak desagertu direla munduan zehar, 80ko hamarkadako belaunaldiak ez dituela gehiago laguntasunaren izpiriturik, krisiaren ondorio normala dela eta abar. Aspertu ginen elkartasunaren eskasaren leloa denetan entzuteaz, gure us-tez ez baita egia. Inkesta batzuen bitartez ohartu gara elkarteen

sarea sendotu dela azken urte honetan eta adibidez 12.000 elkarte sortu dira Frantziako Estatuan 1993an (Iana, osasun edo kanpoko herriekiko laguntza mailan). Medioek oro har zabaltzen duten ideien eta errealtatearen artean dagoen funtsezko paradoxa nahi genuen aztertu tokiko elkarteak gonbidatuz. Hala ere, hautu bat egin dugu eta lehentasuna eman diegu aktualitateko gai minberatsuei (aterbea, Bosnia, ekologia, euskal presoak).

EGUNKARIA.— Baina Che Guevarak zer du ikustekorik egitarauarekin?

BERHO.— Che Guevaraz egindako liburu berriari dagokionez, ia kasualitatez sartu dugu egitarauan ez baititugu ahalak aurre-programazioa egiteko. Topaketaren kasualitatea eta plazerraren ondorio baizik ez da, idazlea Santa Grazikoa baita sortzez.



Jean Luc Berho.

«Bardeetan badira Afrikan aurkitu daitezkeen paisaiak»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Euskal Herriko geografia-
ren inguruko ikastaroa eskaini
zuen joan den asteartean Juan
Kruz Alberdi nekazal teknika-
riak Iruñeko Larraona ikaste-
txean egiten ari diren UEUko
ikastaroen barruan. Alberdik
bi inguru aztertu ditu paisaia-
ren geografia bat azaltzeko:

tu nituen biak oso zonalde ez-
berdinetan zeudelako. Batek
dauka klima mediterranea edo
semi desertikoa, eta besteak
ozeanikoa, kostaldekoa.

EGUNKARIA.— Paisaia zer
ikuspuntutik —natura, landa-
retza, giza-eragina— aztertu
duzu?

ALBERDI.— Saiatu naiz pai-
saian parte hartzen duten



ren edo, zuzenago, nekazarien
eraginez, kriston aldaketak
etorri ziren. Urdaibain, aldiz,
natura, bai paduran bai men-
dialdean nola mantendu den
azpimarratzekoa da.

EGUNKARIA.— Aipatu duzu
mintzaldian jendeak ez duela
Euskal Herria ezagutzen, har-
ritu egiten dela Bardeak be-
zalako eremu bat ezagutzen

ren Bardeak. Orduan jendea
Bardeetara joan zen, eta lan-
datu egin zituen, makina ber-
riak agertu zirenean, eta etxe
berriak ere egin zituzten han,
beren etxeak jauntxoaren esku
zeudelako. Gaur egun oraindik
ikusten dira Argetasen harkai-
tzaren barruan eginiko etxe
horiek. Beraz, hemen paisaia
aldatu egin zuten. Lehengo
paisaia ez dut esango dena ba-
soa zela, baina baso eta landa-
retza gehiago zegoen. Dena
landu egin zen, eta zeharo al-
datu zen. Zenbait tokitan lan
horiek gaizki ateratu ziren, lurra

Juan Cruz Alberdi

Nekazal teknikaria



Juan Kruz Alberdi, UEUko ikastaroan.

OSKAR MONTERO

«Bardeetako
lehengo paisaia
baso eta landaretza
askoz gehiago
zegoen, baina hori
aldatu zen lurra
landu zirenetik».

gatzatua zegoelako, edo neka-
zaritarako balio ez zuelako,
eta hori utzi egin zen. Baina
zonalde horiek pobretu egin
ziren nabarmen, eta orain ger-
tatu da gertatu dena: landa-
retza mota berriak agertu direla,
eta berez zonalde honetan me-
diterraneo paisaia bat aurkitu
behar baldin bagenuen, zen-
bait landaretza Afrikako Ipa-
rraldekoak dira.

EGUNKARIA.— Ingurukoak,
aldiz, basamortua hitza aipa-
tzen denean haserretu egiten
dira...

ALBERDI.— Badira zenbait in-
guru Afrikan aurkitu daitez-
keen aldean berdintsuak dire-
nak. Paisaia aldetik lasai esan
daiteke Euskal Herriko basa-
mortua direla Bardeak. Zer
gertatzen da? Bardeak gaur
egun landatuak daudela, eta
Erriberako klima bera duela.
Gainera, nahiz eta ekoizpena
apartekoa ez izan, bertako
zenbait lur ez dira batere txar-
rak.

Bizkaiko Urdaibai eta Nafa-
roako Bardeak. Biak erabat
ezberdinak izanik ere, badute
zenbait ezaugarri amankomun,
kontserbaziorako aurrera
eraman nahi diren proiektuak,
esate baterako.

EGUNKARIA.— Bi paisaia
—Bizkaiko Urdaibai eta Nafa-
roako Bardeak— aukeratu
dituzu Euskal Herriko pai-
saia-ikuspegia emateko. Zer-
gatik bi hauek?

JUAN KRUIZ ALBERDI.— Eus-
kal Herriko geografiari buruz
oinarrizko ezagupenak eskaini
nahi nituen —paisaiak non
dauden, zer ezaugarri dituz-
ten...—, Euskal Herrian, oso
txikia izan arren, dibersifika-
zio handia dagoelako, klimari
zein landaretzari dagokionez.
Euskal Herria bere osotasu-
nean aurkeztu nahi nuen, be-
raz. Bardeak eta Urdaibai har-

agente guztiak aztertzen. Bai-
na oso denbora gutxi dago hor-
retarako, eta batez ere inguru
fisikoa aztertu behar da.

EGUNKARIA.— Bi paisaia
hauen artean ezberdintasuna-
ren bidez azaldu daiteke Eus-
kal Herria, edo Euskal Herriko
aniztasuna?

ALBERDI.— Euskal Herriko di-
bersifikazioa ateratu nahi izan
dut. Horregatik azaldu nuen
lehendabizi Euskal Herria bere
osotasunean, gero Bardeak
Hegoaldeko paisaia bezala, eta
beste Urdaibai. Bardeak eta
Urdaibai, gainera, badute
beste ezaugarri bat: Bardeetan
orain hor dabilta plangintza
bat egin nahian, eta Urdaibai
Biosferako Erreserba izenda-
tua izan da, eta natura aldetik
biak oso ezberdin mantendu
dira. Bardeak duen ezaugarri
garrantzitsua hori da: gizona-

duenean. Zuk aurretik ezagu-
tzen zenituen Bardeak?

ALBERDI.— Bai, ni betidanik
ibili naiz Bardeetan lan egiten.
Bai Zaragozan lan egiten nue-
nean, bai gero ere, egin nituen
lan batzuk Bardeei buruz.

EGUNKARIA.— Bardeak, hain
zuzen, zer iruditzen zaizu zo-
nalde bezala?

ALBERDI.— Bardeak, gutxie-
nez Bardea Txuria, gizakiaren
okupazioa izan duen zonalde
bat da. Mende honen hasieran
hasi zen, lurren bila zebile-
nean, eta inguruko herri guz-
tietako jendea hara joan zen lur
horren bila. Garai hartan izan
zen sozialismo edo indibidua-
lismoa prozesu bat. Erriberako
lur gehienak kondearenak edo
jauntxoarenak ziren, eta horko
lurra libre, komunalak ziren.
Une hori heldu arte, batik bat
abeltzantzarako erabiltzen zi-

SOSLATA

Parke Naturala?

Oiartzun aldean langile,
Juan Kruz Alberdi nekazal
teknikariak ongi asko ezagu-
tzen ditu Bardeak, hainbat lan
burutu dituelako bertan. Egun
inguru honek duen egitas-
moari buruz —Parke Natura-
laren izendapena, hain zuzen
ere—, ez du iritzi garbirik
eman nahi izan, baina horre-
lakoetan beti arazoak izaten
ohi direla azpimarratu du.
«Parkearen gaiari dagokio-
nez, ekologisten artean ere ba-
natuta daude: batzuk erabat
kontra —Eguzki, besteak
beste— eta beste batzuk alde
—Landazuria, besteak bes-
te—». Egoera hau Urdaibain
—Biosferako Erreserba izen-
datu dute Bizkaiko eremu
hau— gertatzen denarekin
parekatu du Alberdik.

NOSKI JATOR

© Zaldi EROA

PETILLA SUBKOMANDANTEAREN MINTZOA. (THE PROPHET BASK SPEAK)

UDAKO
MARIKULATZE
KANPAINA
JUPITER ESKUALDEAN
EZ DA OSO
ONGI ATERA.
NAFARROA KAPITAINA
EUSKALDUNTZE
PROZESUA ZALANTZAN
JARRI DU...
ERABAT ETSITUA.

Bizirik dagoenak
SEKULA hitzik ez aipa!!

Oinarria ez dago tinko!!
denak ez du berdin iraugo.

eta gaurko menderatuak
Sekularen ordezt "gaur" esanez
bihar dira garaile izango!!

Zanpaturik dauden
oro altxa bitez!!
eta etsituarekin junta!!
ZEIXIOOOO
BIXIUXOOOATE
SEBENOMATS
AAAAATSUOO!!

???... barkatu... ejem...
Petilla... baina azken
hori gu ez ulertu
dugu... !!!

"GUK!"
ergatibod
kono!!

Laboaren
kanta
bat da...

Bihar
zinta
ekarriko
dizuet...

ez dugu
loztuko
SEKULA!!

SNIF!